

TALDEBURU-BATZARRAREN ADIERAZPENA

Bizkaiko Batzar Nagusietako Taldeburu-Batzarrak, 2015eko irailaren 18an izandako batzarrean, honako adierazpena egitea erabagi dau, Europan laguntza eta babes eske dabilzan milaka pertsonen egoerea dala-ta:

1.- Bizkaia beti izan da alkartasun lurralde sufritzen daben pertsonakaz eta beharrianik handienez egon eta edozein laguntza mota eskatzen dabenakaz.

2.- Bizkaiko Batzar Nagusiek alkartasunik handiena erakutsi gura deuse gerran dagozan herrialdeetako errefuxiatuei, eta erakundeen arteko lankidetzan eskatu gura dabe errefuxiatuoi merezi daben eta beharrezkoa daben harrerea egin dakien, eraginkorra eta iraunkorra izateko berme guztiakaz egin be.

3.- Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egiten dabe Europan babesa eskatzen daben milaka errefuxiatuenganako jarrera azkarra eta eraginkorra Espainiako Gobernuari eta Europako Batasunari eskatzen deuseen beste erakundeakaz.

4- Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deuse Foru Aldundiari lankidetzan jardun daiala Eusko Jurlaritzagaz eta EAEko enparaiko erakundeakaz, egoera horri erantzun integrala eta koordinatua emoteko.

5.- Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deuse Foru Aldundiari ahalik eta lasterren egin daiala baliabide materialen inbentarioa, joakon zuzkidura ekonomikoa eta guztikoa; Eusko Jurlaritzaren eskuetan jarri daiala, Jurlaritzak hasierako harrera egin deien errefuxiatuei eta, beharrezkoa balitz, luzaroragokoa zein betirakoa be.

6.- Bizkaiko Batzar Nagusiek autortu egiten dabe gobernuen besteko erakundeek, gizarte erakundeek eta Bizkaiko herritarrek eurek erakutsi daben alkartasuna eta lana. Eskatu egiten deuse Bizkaiko Foru Aldundiari alkarlanean jarraitu daiala horreekaz guztiakaz, gure laguntasunaren beharrean dagozanak gure artean hartzea erraztearren.